

JARDUERA FISIKO ETA KIROL SAILEKO ZERBITZUEN ETA INSTALAZIOEN IREKIERA

Koronabirusak eragindako jarduera fisiko eta kirol zerbitzuen itxiera luzeari amaiera emanaz, Hernaniko jarduera fisiko eta kirol saileko programa eta instalazioen irekiearako proposatzen diren neurri eta baldintzak laburbildu nahi dira, txosten honetan.

➤ EGUTEGIA

Instalakuntzaren eta zerbitzuen irekiera mailakatuta egitea planteatu da, honako egunetan:

EKAINAK 8: Gimnasioaren irekiera, distantzia pertsonala bermatzeko neurriak hartuz.

EKAINAK 15: Igerilekuaren irekiera eta aire zabalean ikastaroen eskaintza.

UZTAILAK 1: Kanpoko igerilekuen irekiera + kiroldegi barruan egingo diren ikastaroen eskaintza.

EKAINA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

UZTAILA						
Al	Az	Og	Or	Lr	Ig	
	1	2	3	4	5	
6	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	
20	21	22	23	24	25	
27	28	29	30	31		

➤ KIROLDEGIA

- Aurrez-aurreko atentziorik ez da emango kiroldegian (beharrezkoak diren kasuetan hartutako hitzorduetan salbu).
- Kafegunea itxita egongo da, eta makinak ez dira erabilgarri egongo (zerbitzuz kanpo).
- Txanda bakoitzak ilara egingo du (distantzia errespetatuz) kiroldegiaren kanpoaldean. Puntuak markatuko dira eta gidak jarri ere.
- Harrerako langileek sarreraren kontrola egingo dute, izen-emate zerrendarekin kontrastatuz.
- Lehen fasean aldagelak guztiz itxita egongo dira. Igerilekuak irekitzean aldagelak irekiko dira, dutxa puntuak mugatuta izango direlarik, distantziak mantentzeko helburuarekin.
- Instalakuntzan puntu desberdinetan (gauzak ikutzeko aukera/arriskua dagoen puntu orotan) gel desinfektatzaile aparatuak jarriko dira.

erabilita), makina bakoitza erabili eta gero egin beharreko prozedura delarik. Makina desinfektatu ondoren eskuak ere gelarekin garbituko ditu.

Ordua bukatzeko 15 minutu falta direnean kirolariek makinak utzi, desinfektatu eta gauzak jasobeharko ditu.

Hau guztia betetzen dela ziurtatzeko gimnasio irekita dagoen bitartean begirale bate gongo da.

- ✓ Gimnasioan erabiltzaileen betebeharrak

2014ko irailaren 30ean Hernaniko Udaleko plenoak onartu zuen eta egun indarrean dagoen Kirol Zerbitzuen Araudi Nagusia betetzeaz gain, ezohiko egoeran gauden bitartean, hondoko puntu hauek ere bete behar dira:

Araudi honi kontrajartzen ez zaion kasuetan, indarrean jarraitzen du orain arteko kiroldegiko erabilera araudia.

- Kiroldegiak eskainiko dituen zerbitzuak erabili ahal izateko hitzordua hartu behar da.
- Behin txanda amaituta instalaziotik atera behar da.
- Hitzordu bat bertan behera uzteko 2 ordu lehenago egin beharko da, bestela ez erabilitzat emango da hitzordua.
- Hitzordua erabili ezean, hurrengo 72 ordutan ezingo da beste hitzordurik hartu zerbitzu horretan.
- Kiroldegian markatutako bideetik joan behar da
- Bi eskuohial erabil behar dira (makinen gainean jartzeko 1 eta lehortzeko 1)
- Maskara erabiltzea derrigorrezkoa da (kirola egiten denean bakarrik kendu ahal izango da)
- Bi metroko distantzia bermatu behar da pertsonen artean
- Takila eta aldagelak ezin dira erabili
- Pertxeroak zenbakiekin gimnasioaren ormetan egongo dira, distantziak zainduz, bakoitzaren gauzak usteko.
- Poltsa txiki bat eraman daiteke maskara, eskuoihalak eta ura botila eramaeko.
- Gimnasioko atean egongo den hidrogela nahitaez eman behar da
- Banakako ariketak egin daitezke, bakarrik, bikoteka ezin dira egin.
- Erabiltzaileak erabilitako makina esprai batekin garbitu beharko du.

➤ ADMINISTRAZIO PROZEDURA

- Hitzorduak telefonoz eta web orritik hartuko dira.
- Egunean hitzordu bakarra hartu ahal izango da.
- Hitz ordua hartzeko ordutegia 07:00tatik 22:00etara izango da
- Aurreko egunetik hartu daiteke hitz ordua.
- Hitzordu bat bertan behera uzteko 2 ordu lehenago egin beharko da, bestela ez erabilitzat emango da hitzordua.
- Hitzordua erabili ezean, hurrengo 72 ordutan ezingo da beste hitzordurik hartu zerbitzu horretan.
- Ordu tarte batzuk baldintza bereziko pertsoneri gordeko zaie.

Hernaniko



Udala
